

Literatura



ESKANEATU

Tantaia • Literatura-Eskola

Sartu Vicens Vivesen literaturan, eta aukeratu zure beharretara hobekien egokitzen den formatua

Paperean erosteko aukera



Eduboken erosteko aukera

Edozein gailutatik eskura daitezkeen 200 titulu baino gehiago.





Vicens Vives Literatura: heziketa-eginahala

Eginkizun liluragarria da literatura-bilduma bat diseinatzea. Erronka hau bikoitza gertatzen da, ordea, liburu on bat irakurtzeak sortzen duen plazera eta ikasleen sentikortasuna eta espiritu kritikoa osatzeko borondatea bateratzen direnean. Eginahal honek betidanik izan du lekua Vicens Vives argitaletxearen ibilbidean, eta bi literatura-bildumaren sorkuntzan gauzatu da orain. Batak eta besteak xede didaktiko argia dute, baina, horrez gainera, irakurlerik zorrotzenaren eskaerak aise asetzen dituzten zehaztasun intelektualak eta edizio-kalitateak gidatzen dituzte.

Tantaia Bigarren Hezkuntzako lehen mailetarako pentsatua da, eta bere irudi ugarien kalitateak eta formatu erakargarriak ezaugarritzen dute. Tantaian

idazle handien kontakizunak argitaratzen dira, arre-
ta bereziz itzuliak. Bilduma honetako titulu batzuk obra klasikoen egokitzapenak dira, literatura-estilo zaindu batez berridatziak.

Literatura-eskola bildumarekin letrei heltzen dien ikaslearen lehen urratsak nahi ditugu gidatu. Egileen eta tituluen aukera egokia funtsezko elementua da irakurketa bultzatzeko, eta horixe da, hain zuzen ere, irakurketa sustatzea, bilduma honen helburu nagusietako bat.

Obren argitalpenak bi irizpide gidari ditu: oharrek eta sarrerek testuaren ulerpen egokirako giltzarriak ematen dituzte, eta jarduera guztiz landuek, berriz, ikaslearen lan aktiboa eta hausnarketa pertsonala bultzatzen dituzte.

Tantaia

Nerabeen munduan, irakurketaren plazeraren aurkikuntza ez zaio literatura onari kontrajartzen, oso bestela baizik. Sineste sendo horrekin garatu dugu **Tantaia** liburu-bilduma oparoa, literatura-kalitateak, aurkezpenaren forma erakargarriak eta bere irudi ugarien bikaintasunak ezaugarritzen dutena.

Tantaian, besteak beste, Oscar Wilde, Conan Doyle eta Charles Dickens mailako idazleen obrak argitaratzen dira, eta idazleok, beren istorioen edertasunarekin hunkitzeaz gainera, giza-kiaren izaerari buruzko irakasgai jakintsuak eskaintzen dizkigute. Zenbait literatura-genero sartzen diren bilduma honetan, ohiko mezuak dira solidarioak izateko, bidegabekerien kontra borrokatzeko eta nork bere buruan sinesten ikasteko premia: polizia-kontakizunen suspensea, mito klasikoen transzendentzia, umorezko ipuinen komikotasuna eta freskotasuna, edo fantasmen istorioen izumena.

Literaturan funtsa den horretan oinarritzen da **Tantaia**: hizkuntzari ematen zaio lehentasuna, eta istorio liluragarriak kontatzen dira, irakurle gazteenen mundua zabaldu eta beste mundu ba-tzuk erakutsiko dizkietenak, berena hobetzeko.

Irudien ugaritasunak eta kalitateak, azkenik, ikasleak sarritan errepikatu nahiko duen ezin ahaztuzko esperientzia bihurtuko dute irakurketa.





Erraldoi berekoia

Arratsaldero, eskolatik etxeratzean, haurrak Erraldoiaren lorategira joaten ziren jolastera.

Lorategi ederra zen, oso polita, belar berde leunez estalia. Belarrean, han-hemenka, lore ederrak zeuden, izarrak bezalakoak, eta hamabi mertxikondo, udaberrian perla-tonuko lore fin arrosak eta udazkenean fruitu mamitsuak ematen zituztenak. Zuhaitzetako txoriek hain goxo aritzen ziren txioka, non haurrak jolasteari utzi eta entzuten geratzen baitziren.

—Zein ongi pasatzen dugun hemen! —esaten zioten bata besteari.

Egun batean Erraldoia itzuli egin zen. Bere lagun bat bisitatzen izan zen, Kornubia¹ aldeko Ogroa, eta zazpi urte geratu zen haren etxean. Zazpi urteak amaitzean esan behar zuen guztia esanda zeukan, ez baitzen oso hiltuna, eta bere gaztelura itzultzea erabaki zuen. Iritsi zenean haurrak ikusi zituen lorategian jolasten.

—Zertan ari zarete hemen? —oihukatu zien doinu haserre, eta haurrek alde egin zuten korrika.

¹ Kornubia: Ingalaterrako hego-mendebaleko eskualdea, Kornualles ere esaten zaio.



Ibar Logaletuaren elezaharra

Argumentua

- 1 Nola da Ibar Logaletua izeneko lekua, eta nolakoak dira bertako herritarrak? Zer da Zaldun Burugabearen elezaharra? (48. or.)
- 2 Bai herriko maisua, bai Brom Bones, gizonkote zakar bat, Katrina van Tassele z maitemindua da. Zergatik Brom ausartak ez dio Ichaboddi zuzenean eraso egiten? Zer broma egiten dio Bromek Ichabodi? (50. or.)
- 3 Egun batean, Katrinaren etxean antolatutako festa batera joaten da Ichabod, eta harekin dantzatzen da, Brom begira dutela. Zein da elkarmizketaren nagusia Ichaboden aldean? (51. or.) Zer istorio kontatzen du Bromek? (52. eta 53. or.)
- 4 Ichabod bakarrik abiatzen da beriz ere Tarry Townera. Maisuak irudimen handiegia du ordea. Zer iruditzen zaio dela bidean dagoen zuhaitz handi-handi bat? Nola jokatu du Ichabodek zaldi beltzaren zaldunaren aurrean? Zer egiten du Ichabodek konturatzen denean bere lagun mutua burua falta duela? Zer botatzen dio zaldunak Ichabodi, eta zer uste du maisuak bota diotela? (54. eta 56. or.)



Ibar Logaletuaren

Iruzkina

- 1 Ichabod Crane maisua oso pertsonaia bitxia da. Sorginen eta fantasmen istorioak kontatzea gustatzen bazaio ere, harritzedagoen basoa gurutzatu beharrek. Zergatik ikaritzen da hainbeste gauzez bidaiatu behar duenean? (49. or.) Nola saiatzen da ikara kentzen?
- 2 Bromek bere maitasunaren arerioa gainetik kentzeko, azken broma egitea erabakitzen du. Zergatik uste duzu kontatzen duela Bromek festan Zaldun Burugabearen buruzko istorioa? Zein da egia Ichabodi atzetik segitzen dion zalduna?
- 3 Brom Bones azkenean Katrina van Tasselekin ezkontzen da. Zergatik egiten du Bromek barre jendeak inon ageri ez den Ichaboden berri galdetzen duenean? Zer dakin Bromek gai horri buruz? Zuk uste duzu Ichabodek halako ikara handia eta halako irudimen mugagabea ez bailitu, ihes egingo zuela herriko? Egokia iruditzen zaizu Bromek egiten duena Katrinaren maitasuna lortzeko?

Adierazpena

- 1 Ipuinean, Ichabod (49. or.), Katrina van Tassel (50. or.) eta Brom Bones (50. or.) pertsonaien erretratuak egiten dira. Erretratu batean, pertsonaia baten fisiko eta izaera deskribatzen ditu egileak. Nola da pertsonaia horietako bakoitza? Konpara itzazu hiru erretratuak, eta esan ezazu zertan diren antzekoak eta zertan desberdinak.
- 2 Ichaboden deskribapenari **karrikatura** esaten zaio, pertsonaia horren itxura fisikoaren ezaugarriak —irudimena eta beldurra besteak beste— esajeratzen eta barregarri uzten dituelako. Zer



Kolorezko irudi ugariak nazioarteko ospea duten artistek eginak dira.

Jarduerak hiru sailetan banatuak daude, eta gida erraza eta atsegina dira irakurketari etekin handiena ateratzeko.

1. Ametsen ahotsa eta beste ipuin miragarri batzuk

Hugh Lupton

Irudiak: **Niamh Sharkey**
Ipuin tradizionalak eta fantasiakoak

Nola izan liteke itsu batek ehiztari batek baino hobeto ikustea? Litekeena al da euriarekin opilak botatzea eta arrainak basoko belarretan igeri ibiltzea? Liburu honetako istorio liluragarriek gauza interesgarriak jakinarazten dizkigute: pertsona zuhurgabeek arazoak ekar ditzaketela, ametsetan sinestea ez dela beti gauza burugabea, eta pertsonarik jakintsuena buruko begiekin ikusten duena dela... eta bihotzeko begiekin ikusten duena.



80 or.

ISBN: 978-84-682-1575-4



2. Erraldoi berekoia eta beste ipuin batzuk

Oscar Wilde

Irudiak: **P. J. Lynch**
Ipuin moralak eta fantasiakoak

Liburu honetan daude bilduak Oscar Wilderen ipuinik ederrenak eta hunkigarrienak, balio moral nagusiak ageri dituzten kontakizunak. Ipuinotako protagonistek, berekotasunari uko eginez, atseginak eta eskuzabalak direnean eta gainerakoengatik arduratzen direnean eskuratzen dute zoriona eta maitasuna.



104 or.

ISBN: 978-84-682-1645-4



3. Esoporen alegiak

Jerry Pinkney


Irudiak: **Jerry Pinkney**
Ipuin moralak eta elezaharrak

Liburu eder honetan Esoporen hirurogei elezahar hautatu dira. Bai generoa bai egilea etengabe imitatu dira. Ez da harritzekoa sekula ez galtzea ospe hori, kontakizun bakoitzak amairik gabeko sorresak eskaintzen baitizkigu: errotari batek eta bere semeak asto bat bizkarrean eramatea erabakitzen dute, otso bat ardi-larruarekin mozarrotzen da, antzara batek urrezko arrautzak erruten ditu, dortoka batek lasterketa batean erbi bati irabazten dio...



128 or.

ISBN: 978-84-682-1654-6



4. Gabon-kanta

Charles Dickens


Egokitzailea: **P. Anton Pascual**
Irudiak: **Christian Birmingham**
Kontakizun moralak eta fantasiakoak

Ebenezer Scrooge zekenari lau mamu agertzen zaizkio gau batean, bere jokamoldean pentsarazi eta, bere berekoikerian setatzen baldin bada, oso etorkizun beltza izango duela jakinarazten diotenak. Kontakizun samur honekin, Dickensek bere irakurleen kontzientziei eragin nahi izan zien, eta konbentzitu bihotz onekoak behar zutela izan eta karitatez jokatu gure mundu bidegabe honetan.



112 or.

ISBN: 978-84-682-1640-9



5. Greziar mitoak

Maria Angelidou

Egokitzapena: **Miguel Tristán**

Irudiak: **Svetlin**


Kontakizun mitologikoak

Mitologiaren magia eta edertasuna osorik ageri dira islatuak bizitasun xarmagarri berridatzi diren bilduma honetako hamaika mito grekoetan. Liburu honetan kontatzen dira, beste istorioen artean, nola borrokatu zen Teseo Minotauroaren kontra, Pandora-ren kutxaren elezaharra, Ikaroren zoritxarreko hegaldia, Orfeok infernura egin zuen bidai eta Ulisesek Troiako gerra amaitzeko erabili zuen egurrezko zaldiaren maltzurkeria.



128 or.

ISBN: 978-84-682-1621-8



6. Isatsetik tiraka

Mary Hoffman

Irudiak: **Jan Ormerod**


Elezaharrak eta animalien ipuinak

Zer gertatzen da otso tripaundi batek ardirik potzoloena jan nahi duenean? Eta azeri bat, oso bizkorra dela esanez, karramarro baten aurrean harrokerian dabilenean? Liburu honetan hamaika istorio atsegin ageri dira, bizi-biziak, eta bertan irakurleak deskubrituko du, batek argiustearena egiten baldin badu, zikoitza baldin bada, edo ahoberokerian jarduten baldin badu, oso akabera txarra izan dezakeela.



112 or.

ISBN: 978-84-682-1655-3



7. Detektibe-ikaslea Lapurreta garesti bat

William Irish

Irudiak: **Rubén Pellejero**

Abentura, misterioa eta umore beltza

Intrigak, emozioak eta suspenseak hasieratik bukaera arte harrapatzen dute irakurlea bi polizia-kontakizun bikainotan. Aurrenekoan egiazko «detektibe-ikasle» baten abentura biziko dugu. *Lapurreta garesti bat* istorioaren umore beltzak, aldiz, bukaera izugarria izango du.



128 or.

ISBN: 978-84-682-1656-0



8. Fantasmen kontakizunak

Steven Zorn

Irudiak: **John Bradley**


Misterioa, izua eta umorea

Itsasontzi bateko bidaiari bat hildako bizidun baten gela berean sartu dute... Umezurtz txiki batek bizitza salbatu nahi dioten bi haur-fantasmen bisita hartzen du... Sar zaitez beldurrik gabe liburu honetako zortzi ipuinen mundu misteriotsu eta fantastikoan. Sorpresa bat izango duzu zain liburuko txoko bakoitzean.



96 or.

ISBN: 978-84-682-1542-6



9. Oliver Twist

Charles Dickens

Egokitzapena: **P. Anton Pascual**

Irudiak: **Christian Birmingham**


Nobela errealista

Nobela hunkigarri honek Oliver Twisten zorigaitzak kontatzen ditu. Oliver Twist eskaleen umezurtzegi batean hazi da, eta sekulako ezbeharrak pairatu beharko ditu, ezer ere jakin gabe, lapur talde batekin elkartzen denean. Intriga eta misterioa trebetasun handiz erabiliz, maitasunak bakarrik gaindi ditzakeela giza sen gaiztoak ulertzen ez duen gizarte baten erretratu satirikoa egiten du Dickensek.



168 or.

ISBN: 978-84-682-1657-7



10. Dantzarien misterioa Zilar Izar


Arthur Conan Doyle

Irudiak: **Tha**

Polizia-kontakizunak

Sherlock Holmesen behaketa-rako ahalmena eta dedukzioarako talentua ezin distiratsua ageri dira bi kontakizun liluragarriotan. *Dantzarien misterioa* istorioan, detektibe famatuak hilketa harrigarri baten egilea aurkitzen du, bere talentu handiarekin kriptograma bat deszifratzea lortzen baitu, eta *Zilar Izar* izenekoan, berriz, Holmesek osorik baliatu behar du bere asmamena, ustezko erruduna akusatzen duten frogak baztertu eta egiazko hiltzailea aurkitzeko.

 128 or. ISBN: 978-84-682-1658-4



11. Robinson Crusoe Daniel Defoe


Egokitzapena: **Eduardo Alonso**

Irudiak: **Robert Inghen**

Abentura-nobela

Handinahiak eta abentura-grinak menderaturik, Robinson Crusoe gazteak gurasoen etxea utzi du, eta, abentura arriskutsu eta zoritxar asko bizi izan ondoren, itsasontzia urperatuta, uharte jendegabe batera heldu da. Uhartean, bizirik irauteko eta izadi latz bat mende hartu ahal izateko, ondo zorroztu beharko ditu Crusoeak asmamena eta irudimena.

 144 or. ISBN: 978-84-682-1659-1



12. Gulliver-en bidaiak

Jonathan Swift

Egokitzapena: **Martin Jenkins**

Irudiak: **Chris Riddell**

Abentura, fantasia eta gizarte-satirazko nobela

Itsasontzia Liliput uhartean urperatu zaiolarik, bertako biztanle txiki zikoitzak ezagutuko ditu Lemuel Gulliverrek; izan ere, aldameneko herriari gerra deklaratzeko gauza dira, arrautzak hausteko moduz ere ez baitira ados jartzen. Ondoren, go bidaietan, Gulliver beste pertsonaia harrigarriekin bizituko da, eta haien bidez gizartearen eta gizakien akatsen satira egingo du, parekorik ez duten umore eta talentuz.

 160 or. ISBN: 978-84-682-1660-7



13. Mikel Strogoff

Jules Verne


Egokitzapena: **J. M. Pérez Zúñiga**Irudiak: **Javier Serrano****Abentura-nobela**

Mikel Strogoff kapitainak bidaia luze eta arriskutsu bat egin behar du Siberiako estean barna, Irkutskeko gobernariari jakinarazi behar baitio Iván Ogareff traidorea tatarari inbaditzaileekin aliatu dela. Bidean, posta-buruzagia atxilotu eta ezpata gori batekin itsutzen dute. Alabaina, bere kemenaren indarrez, eta Nadia gaztearen laguntzarekin, Strogoffek ihes egitea lortzen du, aurre egiten dio Ogareffi eta tatariarren inbasioa geldiarazten du.



176 or.

ISBN: 978-84-682-1661-4

**15. Robotak nire lagunak**

Isaac Asimov


Irudiak: **David Shannon****Zientzia-fikzioa**

Liburu honetako bi kontakizunetan, etorkizuneko gizartea deskribatzen digu Asimovek: gizarte horretan robotak gizakien zerbitzari leialak dira, hainbestearino non haien hutsune afektiboak ere osatzen baitituzte. Halaxe gertatzen da Robbie izeneko robotaren ipuinean, zeina egileak inoiz idatzitako ipuinik samurrenetako bat baita, eta baita Sally robotaren kasuan ere, non inteligentzia hornituriko autoek beren nagusia gaizkileen erasoetatik libratzen baitute.



96 or.

ISBN: 978-84-682-3698-8

**16. Ozeko aztia**

L. Frank Baum


Egokitzapena: **Germán Vives**Irudiak: **Robert Ingpen****Fantasia eta abentura**

Dorotea txikiaren eskutik, Ozeko erresuma magikora garamatza Baumez bidaian. Erresuma horretan sorginak maitagarriekin erretan aritzen dira, eta harrigarriena ere gertatzen da. Abentura biziak eta ezin ahaztuzko pertsonaiek, bata bestearen atzetik, gure ametsak errealitate bihurtzeko erakusten digute, ilusioz eta eginahalak eginez borrokatzen bagara.



160 or.

ISBN: 978-84-682-2775-7

**17. Konkorduna eta «Mila eta bat gau» liburuko beste ipuin batzuk**

Anonimoa


Irudiak: **Michael Foreman****Abentura, fantasia eta umorea**

Mila eta bat gau liburuko hamar ipuin hauetan elkarren ondoan daude pasadizo dibertigarriak, irakaspenez beteriko fabulak eta istorio guztiz fantastikoak, hala nola poltsa batean hiri oso bat gordetzen zuen gizona; lau aldiz hil eta, azkenik, berpiztu zen konkorduna; bere zapaten erruz zuen guztia galdu zuen gizon xuhurra, eta "Ireki zaitetz, sesamo!" oihuari esker aberastu zen aizkolaria.



128 or.

ISBN: 978-84-682-2776-4

**18. Munstroen kontakizunak**

Steven Zorn


Irudiak: **John Bradley****Izua, umorea eta fantasia**

Liburu honetako orrialdeetan era guztietako munstroak dabilta hara-hona: dragoi liluragarri bat, iratxo bihurri batzuk, Frankenstein doktorearen munstroa, gizotso ikaragarri bat... Izaki horien gora-beherak kontatzen dituzten kontakizunek dardarazi, ondo pasarazi, emozionarazi egingo zaituzte, baina, batez ere, ikasiko duzu munstro guztiak ez direla erakutsi ohi dituzten bezain izugarri eta kaltegarriak.



104 or.

ISBN: 978-84-682-2777-1




Literatura-eskola

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako eta Batxiler-goko mailetarako dago bilduma hau pentsatua, eta, bai gaiengatik, bai argitaraturiko testuen literatura-balioagatik, ikasleen arreta aise bereganatuko duten liburuek osatzen dute. Nahitaez agertu beharreko egileen ondoan (Steinbeck, Poe, London, Dickens...), aukera berritzaileak eskaintzen dira Literatura-eskolan, nola diren zientzia-fikziozko edota umorezko kontakizunak eta kontakizun fantastikoak. Bildumak, era berean, literatura-generoen ugaritasunera nahi du ikaslea hurbildu, eta, era horretan, antzezlanak, eleberriak, kontakizun laburrak, ipuin literarioak, etab. bildu ditu.

Sarrera-testu sakon eta interesgarriez gainera, argitalpen bakoitzean ohar-sail bikoitz bat ageri da, hiztegiari dagokiona batetik eta azalpenena bestetik; eta, batez ere, jarduera-sorta zabal bat eskaintzen da, testua ikuspegi literario batetik aztertzeaz gainera, liburu bakoitzaren edukiak proposatzen dituen ikuspegitik ere lantzen dituen: ikuspegi historiko, sozial, etiko, zientifiko eta abarretatik.

Bilduma honetako ale guztiak daude nazioarteko ospea duten artistek egindako kolorezko irudiez hornituak.





Testu lagungarrietan dokumentu kritikoak, historikoak, etikoak, etab. biltzen dira, jardueren abiapuntua direnak.

Orrialde-zenbaketa arabiarrak.

Hiztegi-oharra oso argi idatzia.

Ohar sozio-kulturala edo interpretaziozko oharra kolorean nabarmendua.

Gaiaren araberrako **zatiketa argia** egiten da, ataletan eta azpi-ataletan.

Letrakera beltzak galderen gairadatzak azpimarratzen ditu.

Galderak egin aurreko azalpena.

Jarduerak testu lagungarrietan, sarreran, eta, batez ere, literatura-testuan bertan oinarritzen dira.

Ale guztiak **irudiz** hornituak daude.

2. Urrezko kakalardoa
Morgue kaleko hilketak

Edgar Allan Poe


Irudiak: **Tino Gatagán****Asmameneko eta misteriozko**
kontakizunak

Liburu honetan Poeren ipuin famatuenetako bi biltzen dira. «Urrezko kakalardoa» izenekoa, mezu kodetu bat dakarren pergamino baten aurkikuntza dela medio, Legrandek, protagonistak, bere asmamen zorrotza erakusten du, eta Jupiterrek, haren morroiak, ezin ahaztuzko umore-sena agertuko du. «Morgue kaleko hilketak» kontakizunean, berriz, Dupin ikerlariak, egundoko logika erabiliz, gela itxi batean gertaturiko erailketa baten kasu enigmatikoa asmatzen du.



160 or.

ISBN: 978-84-682-1966-0



edubook

3. Perla

John Steinbeck


Irudiak: **Tino Gatagán****Prestakuntzazko eleberri errealista**

Maisulan txiki hau mexikar elezahar batean oinarritzen da, eta bertako arrantzaile pobre eta zintzo baten gorabeherak kontatzen ditu: munduko perlarik ederrena aurkitu du, baina ondoren, gizarte handinahi eta materialista baten erasoaren biktima gertatzen da. Perla kontakizun hunkigarria da, lirismo sakon batez dago kontatua, eta irakasbide alegoriko garrantzitsua du: jakintzak errugabetasuna galarazten du, eta, perla bezala, sufrimenduan hazten da.



176 or.

ISBN: 978-84-682-1967-7



edubook

4. Cantervilleko mamua
eta beste ipuin batzuk

Oscar Wilde


Irudiak: **Jesús Gabán****Ipuin moralak eta fantasiazkoak**

Wilde irlandar idazlearen ipuin mamitsuenak biltzen ditu antologia honek. *Cantervilleko mamua* ipuinak ematen dio hasiera antologiari, eta, hortik aurrera, maisuki nahasten dira, bertan, genero gotikoaren ezaugarriak eta britainiar nobleziaren satira dibertigarria. Ipuin horietan, besteak beste, suziri baten hutsalkeria kritikatzeko du Wildek, lagun faltsuaren zuri-keria gaitzesten du eta pertsonaia askoren maitasun eta eskuzabaltasun mugagabearekin hunkitzen gaitu.



224 or.

ISBN: 978-84-682-1968-4



edubook

5. Basabizitzaren deia

Jack London


Irudiak: **Victor G. Ambrus****Eleberri naturalista eta abenturazkoa**

Eleberri hau Kanadan kokatua dago, 1897ko «urrearen sukarra» deitu denean, eta Buck nola borrokatzen den bizirik irauteko kontatzen du: Buck zakur bat da, eta gizon anker batzuek bahitu dute Kalifornian, Iparraldeko lur izoztuetan saltzeko gero. Buckek krudelkeria handi bati aurre egin behar dio, baina aldi berean berebiziko maitasuna eta leialtasuna sentitzen du bere nagusiarengana, eta, era horretan, irakasgai hunkigarri bat gertatzen da Londonen istorio hau, berebiziko dramatismo batez helarazten zaiguna.



224 or.

ISBN: 978-84-682-1969-1




edubook

6. Inspektore bat ate joka

J. B. Priestley

Irudiak: **Svetlin****Drama morala eta intrigazkoa**

Poliziako inspektore batek, Birlingtarren familiaren etxean ustekabeen agertzen delarik, Sheilaren ezkontza-konpromisoa ospatuz egiten ari diren afari animatua eteten du, eta mahaikideek neskata baten suizidioan izan dezaketen inplikazioa ikertzen du. Une horretatik aurrera, suspensez betetako istorio bat garatzen da, esanahi moral handiko gai bat plazaratzen duena: denok gara gizadiaren kideak, eta, hortaz, denok gara gainerakoen patuaren erantzuleak.

 144 or. ISBN: 978-84-682-1970-7


edubook

7. Baskervilletarren zakurra

Arthur Conan Doyle

Irudiak: **Iassen Ghiuselev****Polizia eta misteriozko eleberria**

Dartmoor-ko lur mortuetan erasoan ibiltzen zen zakur gaizto beldurgarri bati buruzko elezeharrean inspiratu zen Arthur Conan Doyle *Baskervilletarren zakurra* idazteko, bere eleberri guztietan bikainena. Eleberri honetan egileak trebetasun handiz bateratu zituen polizia-generoa eleberri gotikoaren baliabideekin, elkarriketa bizia eta kontaketa erakargarria txandakatuz; eta, bukatzeko, intriga eta suspense-dosi eder batez hornitu zuen dena.

 304 or. ISBN: 978-84-682-1971-4


edubook

8. Katu beltza eta izumenezko beste ipuin batzuk

Edgar Allan Poe

Irudiak: **Jesús Gabán****Kontakizun fantastikoak eta izumenezkoak**

Poek, irakurlea izutzeko, giza gogoaren bazterrik ilunenak miatu zituen: haietatik datoz kontakizun batzuetako protagonistak hiltzaile bihurtzera bultzatzen dituzten eldarniozko irudiak (hala "Katu beltza" eta "Bihotz salatarioa") eta haietan sortzen da krimen lazgarriekin gauzatzen den mendekudesira ("Amontillado kupela" eta "Hop Frog"). Kontakizun hauetan guztietan, azken batean, ipuinlarien maisu paregabea den Poeren literatura-jeinua nagusitzen da.

 224 or. ISBN: 978-84-682-1972-1


edubook

12. Robbie eta beste kontakizun batzuk

Isaac Asimov

Irudiak: **David Shannon****Zientzia-fikziozko kontakizunak**

Zer gertatuko ote da robotak gure seme-alabak zaintzeko eta gure autoak gidatzeko erabiltzen hasten garenean, robotei uzten diegunean gure gobernariak hautatzen eta gure arazo guztiak konpontzen? Zer gertatuko ote da makinak hasten badira erabakiak hartzen gure orde? *Robbie eta beste kontakizun batzuk* galdera interesgarri eta erantzun aberasgarri beteriko liburua da, eta aldi berean gustagarria eta kezkarria gertatzen zaigun etorkizun bat deskribatzen du.

 168 or. ISBN: 978-84-682-1976-9


edubook

13. Saguak eta gizonak

John Steinbeck

Irudiak: **Tha****Prestakuntzazko eleberri errealista**

John Steinbeck (1902-1968) estatubatuar idazleak 1937an lortu zuen behin betiko idazle ospea, hain zuzen ere *Saguak eta gizonak* eleberria argitaratu zenean. Kalifornian girotutako lana da, Depresio Handiaren garaian. Testuinguru historiko horretan, zentzu transzendentea hartzen du baserri txiki bat erostearekin amets egiten duten bi sasoilariren istorio dramatikoak.

 160 or. ISBN: 978-84-682-3530-1


edubook

BALIO-TAULA		Adiskidetasuna	Laguntasuna	Konfiantza	Jarraikitasuna	Sormena	Iritzia	Aniztasuna	Eskuzabaltasuna	Zintzotasuna	Irudimena	Justizia	Ingurumena	Erantzukizuna	Solidaritatea	Tolerantzia	Adorea
Tantaia bilduma																	
1. Ametsen ahotsa eta beste ipuin miragarri batzuk	<i>Ipuin tradizionalak eta fantasiazkoak</i>																
2. Erraldoi berekoia eta beste ipuin batzuk	<i>Ipuin moralak eta fantasiazkoak</i>																
3. Esoporen alegiak	<i>Ipuin moralak eta elezaharrak</i>																
4. Gabon-kanta	<i>Kontakizun morala eta fantasiazkoa</i>																
5. Greziar mitoak	<i>Kontakizun mitologikoak</i>																
6. Isatsetik tiraka	<i>Elezaharrak eta animalien ipuinak</i>																
7. Detektibe-ikaslea Lapurreta garesti bat	<i>Abentura, misterioa eta umore beltza</i>																
8. Fantasmekontakizunak	<i>Misterioa, izua eta umorea</i>																
9. Oliver Twist	<i>Nobela errealista</i>																
10. Dantzarien misterioa Zilar Izar	<i>Polizia-kontakizunak</i>																
11. Robinson Crusoe	<i>Abentura-nobela</i>																
12. Gulliver-en bidaiak	<i>Abentura, fantasia eta gizarte-satirazko nobela</i>																
13. Mikel Strogoff	<i>Abentura-nobela</i>																
15. Robotak nire lagunak	<i>Zientzia-fikzioa</i>																
16. Ozeko aztia	<i>Fantasia eta abentura</i>																
17. Konkorduna eta «Mila eta bat gau» liburuko beste ipuin batzuk	<i>Abentura, fantasia eta umorea</i>																

BALIO-TAULA		Adiskidetasuna	Laguntasuna	Konfiantza	Jarraikitasuna	Sormena	Iritzia	Aniztasuna	Eskuzabaltasuna	Zintzotasuna	Irudimena	Justizia	Ingurumena	Erantzukizuna	Solidaritatea	Tolerantzia	Adorea
Tantaia bilduma																	
18. Munstroen kontakizunak	Izua, umorea eta fantasia			●	●	●	●	●	●		●			●		●	●
Literatura-eskola bilduma																	
2. Urrezko kakalardoa Morgue kaleko hilketak	Asmameneko eta misteriozko kontakizunak			●	●	●	●										●
3. Perla	Prestakuntzazko eleberri errealista	●		●				●		●		●		●			
4. Cantervilleko mamua eta beste ipuin batzuk	Ipuin moralak eta fantasiakoak	●					●		●		●	●				●	●
5. Basabizitzaren deia	Eleberri naturalista eta abenturazkoa	●	●	●	●				●	●			●	●			●
6. Inspektore bat ate joka	Drama morala eta intrigazkoa						●	●		●		●		●	●	●	
7. Baskervilletarren zakurra	Polizia eta misteriozko eleberria	●	●	●			●					●					●
8. Katu beltza eta izumenezko beste ipuin batzuk	Kontakizun fantastikoak eta izumenezkoak	●					●				●	●				●	
12. Robbie eta beste kontakizun batzuk	Zientzia-fikziozko kontakizunak	●		●		●	●			●	●	●	●	●	●	●	
13. Saguak eta gizonak	Prestakuntzazko eleberri errealista	●	●	●	●			●	●	●	●	●		●	●	●	●



**Sartu orain eta sortu
zure irakurketa-plana!**



Jarrai gaitzazu hemen:

